

EROSKI-K 160 SUPERMERKATU PROPIO SALDU DITU ERDIALDEAN ETA HEGOALDEAN 146 MILIOITAN

- **Hemendik aurrera, Díarenak izango dira saltokiak, eta bere gain hartuko ditu langileen kontratuak; beraz, ez da enplegurik galduko**
- **Salmentak eragin positiboa izango du Taldearen errentagarritasunean, eta pasiboa txikitzen lagunduko dio**
- **Taldearen Plan Estrategikoaren barnean dago sartuta operazioa, haren lehentasunezko negoziak indartzeko**
- **EROSKIren sare komertzialak, aurtengo 53 irekierekin, frankizietan oinarrituko du oraindik ere bere hedapena**

Elorrio, 2014ko azaroaren 4a.- [EROSKI](#) akordio bat egin du Día banatzailearekin, erdialdeko eta hegoaldeko 160 saltokik osatutako supermerkatu propio multzo bat saltzeko, 146 milioi eurorengatik. Desinbertsioak ez du eraginik izango enpleguan, operadore berriak subrogatu egingo baititu taldeen lan kontratuak. Salmenta akordioa gauzatzeko, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak onartu behar du.

Saltoki horiek utzita, EROSKI pasiboa gutxituko du, eta Taldearen errentagarritasun globala hobetuko, konpainiaren batez besteko efizientzia ratioen azpitik dauden aktiboetatik bereizi delako.

EROSKIko finantza zuzendariak, Rosa Carabelek, oso baikortzat jo du operazioa, "saltoki gehienak ez direlako iristen kooperatibak ezarritako errentagarritasun estandarretara". Gainera, Carabelek esan du desinbertsio honek eragin positiboa izango duela EROSKIren errentagarritasunean, epe erdira begira.

Operazio honekin, ari da kooperatiba Plan Estrategikoa betetzen, indarguneetan eta errentagarritasunean jarri baitu ardatza.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es

Operazio honen bitartez, EROSKI Taldeak Espainiako elikagai negozioaren denda sareari eutsiko dio, 90 hipermerkatuekin, 831 supermerkatuen jabetzarekin eta 448 frankizia supermerkatuekin. EROSKIren sarearen hedapen estrategia, aurtengo 53 irekierekin, frankizien garapenean oinarritzen da, oso eredu lehiakorra erabilia eta frankiziei errentagarritasun erakargarria eskainita; frankizia supermerkatuen sarean bigarrena da Espainian.

EROSKI TALDEAREN HIPERMERKATU ETA SUPERMERKATU SAREA

| ZONA | HIPERMERK ATUA | SUPERMERK ATUA |
|--|----------------|----------------|
| IPAR-MENDEBALDEA Galizia, Asturias | 7 | 308 |
| IPARRALDEA Kantabria, EAE, Nafarroa, Errioxa | 27 | 337 |
| IPAR-EKIALDEA Katalunia + Aragoi | 7 | 345 |
| ERDIALDEA Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Madril, Extremadura | 13 | 39 |
| SORTALDEA Valentzia, Murtzia | 18 | |
| BALEAR ALDEA Balear uharteak | 2 | 198 |
| HEGOALDEA Andaluzia, Ceuta, Kanariak | 16 | 52 |
| GUZTIRA | 90 | 1.279 |

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es